

Manu Legarreta-Etxebarria

Joserra Larrinaga

• PRESO OHIA •

• PRESO OHIA •

«Preso guztiak Euskal Herriratu arte ezin da Gobernuaren jarreran sinistu»

■ Zelangoa izan da azken aste hau, kalera atera behar zenutela jakinda?

Joserra Larrinaga: Gutxi gora behera bagenekien ateratzekoak ginela, paperekin atzera eta aurrera ibili dira abokatuak. Jendearen presioa dela medio, epaileak herenegun gure askatasuna sinatu zuen. Eta kalean gaude, hori da garrantzitsua.

Manu Legarreta-Etxebarria: Ni ez naiz ezertaz enteratu, noiz aterako zain egon gara eta ordu biak eta erditan abisatzera etorri dira. Kaleratzekoak ginela esan digute, txapearen ostean, kideak ez agurtzeko.

J.L.: Badakite oso ezagunak gara, Zaharra eta biok oso ondo konpontzen gara sozialekin, eta ez digute agurtzen utzi, baina gu lagun guztiak agurtu arte ez gara atera. Kartzela osoa gu agurtzera etorri da, batzuek geletatik, eta patiotik besteak.

M.L.: Agurtu eta kanpora, pakete eta boltsa guztiak prest genituelako. Esan eta txistu bizian irten gara, denbora askorik barruan egin barik.

■ Zer oroitzapen laga dituzue hor atzean, kartzela barruan?

M.L.: Lagun handiak utzi ditut nik hor barruan. Hainbeste urteren ostean, oroitzapen asko, ia 21 urte egin ditut kartzelan eta ez da errez ahazten hor barrukoak. Pena handia hartu dut hor barruan geratu direnean.

J.L.: Zama bat utzi dugu atzean, eta orain espazio libre batean bizi behar dugu, askatsunean bizitzera ohitu beharra dago.

■ Zuek biok, Sakabanaketa jasan duzue, Euskal Herrira ekarri zintuztetan unerarte, alde dago Basauri eta gainontzeko espetxeen artean?

M.L.: Ni duela bi urte ekarri ninduten Basaurira, ordu-rarte beti Euskal Herritik kanpoko espetxeetan eduki naute. Algecirasen kasurako oso txarto geunden. Bestelakoa da Basaurin egotea, lagunengandik gertuago, bisita gehiago. Presoak, bere

■ ■ ■ Manu Legarreta-Etxebarria mungiarra eta Joserra Larrinaga markinarra atzo irten ziren kalera, hurrenez hurren 21 eta 16 urte espetxean pasa ostean, ■ ■ ■ Senide eta lagunak zituzten zain Basauriko kartzela kanpoan, eta txalaparta doinuarekin eta txanpainaz ospatu zuten askatasuna. ■ ■ ■ Zigorraren hiru laurdenak aspaldi beteak zituzten biek, Legarreta-Etxebarriak duela zortzi urte.



MIKEL MARTINEZ

Manu Legarreta-Etxebarria —ezkerrean— eta Joserra Larrinaga, atzo Basauriko espetxetik irteten, 21 eta 16 urte kartzelan egin ostean.

etxetik gertu egon behar du derrigorrez, legeak hala esaten duelako.

J.L.: Nabaritzen da Euskal Herrian gaudela, ni batez ere hemendik urrun eduki naute. Nik denbora gehiena Herrera, Sevilla eta Cordoban egin dut. Basaurin gauden arren, hau *falangearen kabi* bat da. Funtzionari gehienak Santoña eta Santanderrekoak dira eta euskal kutsua duen oro gorroto dute. Lehengo batean arabiar preso bati ikurriña kendu zioten. Preso sozial batek Jon Idigorasak emandako postal bat zuelako adarra jo zion *kartzeleroak*. Gorrota digute guri eta euskal kutsuko guztiari.

Hau familiarentzat oso ondo dago, baina kartzela ziztrina da, ez dago ekintzarik. Aktibitate mailan Cordoba hau baino hobea zen, hemen

Joserra Larrinaga

«Gobernuaren azken mugimendua behar mediatikoen ondorioa da. Hori ez da keinu bat. Mugimendu txiki hori adar-jotze hutsa izan da»

Manu Legarreta-Etxebarria

«Kalean sekulako giroa dago, itzela. Itxaropentsu ikusten dut jendea. Inor ez dago geldi, mobilizazioak barruraino heldu zaizkigu»

dauden apurkak elizak antolatzen dituelako.

■ Eta, irten berri zaudeten arren, zer espero duzue topatzea kalean?

M.L.: Kalean sekulako giroa dago, itzela. Itxaropentsu ikusten dut jendea. Inor ez dago geldi, mobilizazioak

barruraino heldu zaizkigu. Herria borrokan dago eta presoak Euskal Herriratu arte etsi barik jarraitu behar da.

■ Zelan baloratzen duzue gobernuak presoekin hartutako azken erabakia?

M.L.: Guretzat hau ez da ez keinu bat ez ezer. Nire ustez

tranpa bat da eta gu ezin gara bertan erori. Ezin da Espainiaren demokrazia eta justizian sinestu, presoak herrira ekartzen ez dituzten artean, ezin dugu gobernuaren jarreran sinestu. Zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoak eta gaixorik daudenak kaleratu arte, ezingo dugu gobernuaren borondatean sinestu.

J.L.: Gobernuaren azken mugimendu hau, beraien behar mediatiko eta elektoral batzuen ondorioa da. Hau ez da keinu bat. Mugimendu txiki hau adar jotze hutsa izan da. Gutxi batzuk Basaurira ekartzea. Edo Cordobatik Valentziara hurbiltzea. Interpretazio bakarra dauka: adar jotzea.